# UDAKO AISIALDI ESKAINTZA 2016

UDALEKU IREKIAK

ENJOY ENGLISH

MENDIA ETA PILOTA UDALEKUA

ITSASO ETA KULTURA UDALEKUA

EUSK(H)ARA MUGARA UDALEKUA

INGELES UDALEKUAK/ENGLISH SUMMER CAMPS

SURF UDALEKUAK

UDALEKU IBILTARIA

GAZTE EGONALDIAK

ELKARREKILAN ZUBEROAN

ATZERRIKO EGONALDIAK

ikastolenelkartea

# ETXEKO GAZTEENEI BEGIRAKO AISIALDIKO ESKAINTZA ZABALA DAKAR ESKUARTEAN DUZUEN ESKUORRI HONEK.

HIRU URTETIK HASI ETA ADIN NAGUSITASUNERA ARTEKO EGONALDIAK DITUZUE AUKERAN, EUSKAL HERRIKO KOKAGUNE DESBERDINETAN ETA ATZERRIAN BARREIATUTAKO EGONALDIAK.

EDUKIETAN ZEIN EGITEKO MODUETAN BALIO HEZITZAILE BERAK IZANGO DIRA ARDATZ:

- **AUTONOMIAN HEZI:** haurraren eta gaztearen autonomian eragitea da egonaldi guztien helburua. Gainera, bizitzako egoera errealak bizitzeko denbora eta eremua da aisialdiarena.
- **NORBANAKOTIK KOLEKTIBORA:** haur eta gaztearen autonomiatik edo eraikuntza pertsonaletik eraikuntza kolektibora iritsiko gara egonaldietan, herrigintzara. Taldean lan eginez, erabaki kolektiboak errespetatzea izanik gure iparrorratza.
- **EKINTZAILETASUNEAN HEZI:** hartzaile pasibo izan ordez, partaide aktibo bilakatzeko praktiketan oinarrituko da gure jarduna.
- **DENONTZAKO AISIALDIA:** ikasle bakoitzaren gaitasun eta beharrak desberdinak dira eta aniztasun hori kontuan hartuta bizikidetza egoki bati ekingo dio taldeko kide orok.
- **PAREKIDETASUNEAN HEZI:** gizon/emakume rolek dakarten botere desorekarik gabe, berdintasuna izango da aisialdiko praktika ororen oinarri.
- **EUSKALDUN ELEANIZTUNAK:** ikaslearen konpetentzia linguistikoak bizitzako egoera errealetan eraginkorrak izateko, euskara ardatz duen ingelesaren ikaskuntzak toki zabala du gure eskaintzan. Hizkuntza batek kultura bat dakar berarekin, hizkuntzen eta kulturen aniztasunari lekua eginez, elkar ezagutuz eta bizipenak pilatuz, komunitateak bi noranzkoetan aberasten dira.

ikastolen elkartea

INGELESA 5+

# ENJOY ENGLiSH

## JATORRIZKO INGELES HIZTUNEK GIDATZEN DUTEN UDALEKU IREKIA DA.

5-12 URTE

ikastolen elkartea

Jolas, ipuin, eskulan eta abesti desberdinen bitartez jatorrizko ingeles hiztunek eta haurrek, era naturalean, harremanetan jartzeko aukera izango dute.



**NORENTZAT:**

**A TALDEAK:**
2008-2010 artean jaiotakoentzat.

**B TALDEAK:**
2004-2007 artean jaiotakoentzat.

**NON:** Norbere ikastolan burutuko da, goizeko ordutegian.

**NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 22ra.

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA:**

Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko galdetu zure ikastolan.



INGELESA 10+

# iNGELES UDALEKUAK

# ENGLiSH SUMMER CAMPS

## KOSTALDEAN BARRENA HIZKUNTZEN LANKETA

## 10-16 URTE

ikastolenelkartea

PREZIOA

Ikastolen Elkarteko ikasleek

**545** euro

*

Gainerakoek

**598** euro

### 1. TXANDA

NOIZ: Ekainaren 25etik uztailaren 9ra

NORENTZAT: 2004-2005ean jaiotakoentzat.
NON: Eleizalde Ikastolan (Bermeo).

NORENTZAT: 2002-2003an jaiotakoentzat.
NON: Salbatore Mitxelena Ikastolan (Zarautz).

NORENTZAT: 2000-2002 artean jaiotakoentzat.
NON: Ander Deuna Ikastolan (Sopela)

### 2. TXANDA

NOIZ: Uztailaren 10etik 24ra

NORENTZAT: 2004-2005ean jaiotakoentzat.
NON: Eleizalde Ikastolan (Bermeo).

NORENTZAT: 2002-2003an jaiotakoentzat.
NON: Salbatore Mitxelena Ikastolan (Zarautz).

NORENTZAT: 2000-2002 artean jaiotakoentzat.
NON: Ander Deuna Ikastolan (Sopela).







IZEN EMATEA: Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

INGELESA 13+

IRLANDAR kulturan eta ingelesean murgiltzeko aukera paregabea eskaintzen duen egonaldia. Egonaldiok 4 astez Irlandan egingo dira.

# ATZERRIKO EGONALDIAK
## IRLANDA



### PREZIOA

EGONALDIA FAMILIAREKIN:

Ikastolen Elkarteko ikasleek
**2.500** euro

*
Gainerakoek
**2.800** euro

EGONALDIA FAMILIAREKIN + INGELES ESKOLEKIN:

Ikastolen Elkarteko ikasleek
**2.700** euro

*
Gainerakoek
**2.950** euro

**NORENTZAT:** 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.

**NOIZ:** Uztailean.

**OSTATUA:** Familietan.

**PREZIOAN SARTZEN DENA:**

- Bidaia hegazkinez.
- Garraioa aireportutik familiara.
- Familian ostatua (mantenu osoa).
- Astean 17 orduko ingeles ikastaroa eta ikasmateriala (dagokionean).
- Egun osoko lau ibilaldi.
- Kirol ekintzak.
- Ekintza sozialak eta kulturalak.
- Arduradunen laguntza.
- Bidaia asegurua.
- Argibide bilera.

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta apirilaren 29an itxiko.

Izena emateko idatzi:
enjoy@ehi.ikastola.eus
helbidera edota deitu
(0034)94.435.43.40
telefonora.

Baldintza orokorrak izen emate fitxarekin batera azalduko dira.

ikastolenelkartea

Ekainaren amaieran hasi eta uztailean zehar ikastolan bertan eskaintzen den goizeko aisialdi zerbitzua da.

**NORENTZAT:**
2008-2012 artean jaiotakoentzat.

**NON:**
Norbere ikastolan.

**NOIZ:**
Ekainaren 27tik aurrera.

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA:**
Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko, galdetu zure ikastolan. Ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea.

# UDALEKU IREKIAK 3+
## UDAN IKASTOLA ZABAL ETA ZABALIK!
### 3-8 URTE

ikastolenelkartea







# IPARRALDE ETA HEGOALDEKO GAZTEEN TOPAKETAK

ikastolen elkartea

Lurraldeen arteko zubia izan nahi du egonaldi honek. Horretarako, udaleku batean elkartuko ditugu iparraldeko eta hegoaldeko ikasleak, astebetez. Hezitzaileak ere erdiak iparraldekoak eta erdiak hegoaldekoak izango dira. Harremanak sustatzeaz gain, Mauleko zein Lekeitioko baliabide kultural eta naturalak ezagutarazteko baliatuko da egonaldia.

**PREZIOA**

Ikastolen Elkarteko ikasleek **250** euro

*

Gainerakoek **285** euro



## "ELKARREKILAN ZUBEROAN" egonaldia 8-11 URTE

**A TOPAKETA**

NOIZ: Uztailaren 17tik uztailaren 22ra.

NORENTZAT: 2005-2007 artean jaiotakoentzat.

NON: MAULEn, Zuberoan.

**8+**



## "ELKARREKILAN BIZKAIAN" egonaldia 11-14 URTE

**B TOPAKETA**

NOIZ: Uztailaren 10etik uztailaren 15era.

NORENTZAT: 2002-2004 artean jaiotakoentzat

NON: LEKEITIOn, Bizkaian.

**11+**

IZEN EMATEA: Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

uda leku elkartea

UDALEKU ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN ANTOLATURIKO EGONALDIA

# EUSK(H)ARA MUGARA UDALEKUAK

## MUGARAINO GOAZ EUSKAL KULTURA SUSTATZERA

8+

8-12 URTE

PREZIOA

Ikastolen Elkarteko ikasleek **245** euro

*

Gainerakoek **280** euro

ikastolenelkartea



**NORENTZAT:**

2004-2007 artean jaiotakoentzat.

**NON:**

Assa ikastolan (Lapuebla de Labarca).

**NOIZ:**

**1. TXANDA**
Ekainaren 26tik uztailaren 2ra.

**2. TXANDA**
Uztailaren 3tik 9ra.

**3. TXANDA**
Uztailaren 10etik 16ra.

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

# ZUTUNDU SURF UDALEKUAK

## OLATU ARTEAN DANTZAN

10+

10-18 URTE

Zutundu Surf Eskolaren eskutik astebeteko euskarazko surf egonaldia. Surf eskolak (material guztia barne) eta honekin lotutako jarduerak eskainiko dira: skate, streching, slackline, oreka ariketak, material tailerra, txangoak...

**NON:** Igerain aterpetxean (Zarautz).

**1. TXANDA**
NORENTZAT: 2002-2003an jaiotakoentzat.
NOIZ: Ekainaren 26tik uztailaren 2ra.

**2. TXANDA**
NORENTZAT: 2004-2005ean jaiotakoentzat.
NOIZ: Uztailaren 3tik uztailaren 9ra.

**3. TXANDA**
NORENTZAT: 2004-2005ean jaiotakoentzat.
NOIZ: Uztailaren 10etik 16ra.

**4. TXANDA**
NORENTZAT: 2002-2003an jaiotakoentzat.
NOIZ: Uztailaren 17tik 23ra .

**5. TXANDA**
NORENTZAT: 1998-2001 artean jaiotakoentzat.
NOIZ: Uztailaren 24tik 30era.

Txanda bakoitzean 31 partaideko muga.

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

PREZIOA

Ikastolen Elkarteko ikasleek **400** euro

*

Gainerakoek **435** euro

ZUTUNDU SUP & SURF ESKOLA

ikastolenelkartea



# 6+

# MENDIA ETA PILOTA UDALEKUAK

OIONEN

6-12 URTE




Ikasleek, Euskal Herriko hegoaldeko txoko zoragarri honetan, gure jolas eta jokoez, pilota modalitate desberdinez eta naturaz gozatzeko aukera paregabea izango dute. Ikastolako eta herriko frontoietan, herriko plaza eta kaleetan eta inguruko mahasti, baso, zelai eta menditxoetan Herri Kirol, pilota, orientazio, iluntasun, eskalada... jolas eta jokoak bizi eta eraldatuko dituzte. Eta noski, tailerrak, gaubelak, igerilekua eta irteerak ere ez dira faltako! Udaleku hauek Arabako Pilota Federazioarekin batera antolatzen ditugu.

**PREZIOA**

Ikastolen Elkarteko ikasleek eta pilota federatuek

**225** euro

*

Gainerakoek

**250** euro

**NORENTZAT:** **NOIZ:**

2005-2010 artean jaiotakoentzat.
Ekainaren 25etik 30era.

**NON:** San Bizente Ikastolan (Oion).

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

# ITSASOA ETA KULTURA UDALEKUAK

"LEKITTON"

10-14 URTE

**PREZIOA**

Ikastolen Elkarteko ikasleek

**345** euro

*

Gainerakoek

**360** euro

Lekeitio eta inguruan urak eta itsasoak kostaldean, pertsonengan, komunikazioan eta kulturan izan duen eragina biziko dute ikasleek. Itsas munduaren jatorria ezagutuko eta sentituko dute itsasoan bideratuko diren ur jolas, joko eta jardueren bidez: arrauna, surfa, piraguak, itsas irteera...

**NORENTZAT:** **NOIZ:**

**1. TXANDA**

2004-2005ean jaiotakoentzat.
Ekainaren 26tik uztailaren2ra.

**2. TXANDA**

2002-2003an jaiotakoentzat.
Uztailaren 3tik 9ra.

**NON:**

R.M. Azkue Ikastolan (Lekeitio).

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

# 10+



ikastolen elkartea

# UDALEKU IBILTARIA

IZOKINA BEZALA BIDASOAN GORA, OINEZ GOAZ IRUNETIK AMAIURRERA

12-16 URTE

# 12+

**NORENTZAT:**

2000-2003 artean jaiotakoentzat.

**NOIZ:**

**1. TXANDA**
Uztailaren 10etik 16ra.

**2. TXANDA**
Uztailaren17tik 23ra.

**NON:**

Bidasoa bailaran:
Irun - Bera - Lesaka - Arantza - Sunbilla - Elizondo - Amaiur

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 6an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

**PREZIOA**

Ikastolen Elkarteko ikasleek

**330** euro

*

Gainerakoek

**365** euro

Bidasoa ibaia iparraldearen eta hegoaldearen arteko mugatzat ikusi den arren, Bidasoa bailarako herritarrek eta Pirinioko beste aldekoek harreman estua dute, egun ere. Irunen hasi eta Amaiurren bukatuko den udaleku ibiltari honek ikasleei Euskal Herriko txoko honetako ezaugarriak ezagutzeko aukera emango die: kontrabandisten historia, ganadu trukaketa, "Comète" sarea, Amaiurreko gaztelua... Mendizaletasuna, ezagutza berriak, adiskide berriak... naturan gozatuz!





11+

# GAZTE EGONALDiAK

## 11-18 URTE

Euskal Herri guztiko gazteen bilgune izango da Arantza uda honetan. Bertan laburmetraiak egiten ikasiko dugu, euskal musika gehiago ezagutzen eta musikari ezagunen kontzertuekin gozatzen!

**PREZIOA**

Ikastolen Elkarteko ikasleek **255 euro**

*

Gainerakoek **290 euro**

**IZEN EMATEA:**

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta maiatzaren 8an itxiko. Baldintza orokorrak izen emate orriarekin batera azalduko dira.

**NON:** Arantzako Aterpen (Nafarroa).

**1. TXANDA**

**NORENTZAT:** 2002-2004 artean jaiotakoentzat.

**NOIZ:** Uztailaren 3tik uztailaren 9ra.

**2. TXANDA**

**NORENTZAT:** 2002-2004 artean jaiotakoentzat.

**NOIZ:** Uztailaren 10etik 16ra.

**3. TXANDA**

**NORENTZAT:** 1998-2001 artean jaiotakoentzat.

**NOIZ:** Uztailaren 17tik 23ra.



**SAREAN:** Gazte Egonaldiak / twitter @GazteEgonaldiak

ikastolenelkartea



BADOK
BERRIA-REN EUSKAL MUSIKAREN ATARIA

BADO.EUS WEB ATARIAREKIN ELKARLANEAN

# NOLA EGIN IZEN EMATEA?

## bat: ON-LINE BIDEZ

1.1 IZEN EMATEA honako orrietan egin ahal izango duzue: **www.aisialdia.eus** eta **www.ikastola.eus** (AISIALDIA ATALA)

1.2 "MATRIKULATU" IRUDIAN KLIKATUZ, formulario bat agertuko zaizue bertan datuak sartzen joateko.

**adi!** Izen ematea gauzatu ahal izateko, honako alderdiak betetzea derrigorra izango da:

— SEME-ALABAREN OSASUN TXARTELAREN ZENBAKIA.
— ARGAZKIA.
— ORDAINKETA ATALA (txartelaren bidez edo transferentziaren ziurtagiria fomularioan txertatuz).

Izen ematea egoki bukatu dela jakiteko, emandako helbide elektronikoan mezu bat jasoko duzue.

## bi: POSTA ARRUNTEZ

2.1 IZEN EMATE ORRIAK 3 hizkuntzatan lortu ahal izango dituzue. Atzeko orrialdean NON LORTU zehazten da.

2.2 IZEN EMATE ORRIAREKIN BATERA, osasun txartelaren fotokopia, argazkia eta ordainketaren agiria bidali behar dizkiguzue Ikastolen Elkartera.

2.3 ORDAINKETA EGITEKO DATUAK:
Kontu korronte zenbakiak:

**KUTXABANK:**
IBAN: ES35 2095.0114.61.3830351430
BIC: BASKES2BXXX

**EUSKADIKO KUTXA:**
IBAN: ES49 3035.0122.88.1220012930
BIC: CLPEES2MXXX

**adi!** Ordainagirian haurraren **izen abizenak** eta aukeratutako **udalekua** derrigorrez adierazi beharko dira.
*Adib.: Amaia Irusta Enbil – Ingeles udalekuak.*

## KONTUAN HARTZEKOAK

1. ATZERRIKO EGONALDIETAN izena emateko jarri zuzenean harremanetan Ikastolen Elkartearekin.
2. DESKONTUAK: Familia bereko anai-arreben izen ematean, deskontuak izango dira. Baldintza orokorrak izen emate orrian azalduko dira.
3. BAJA IRIZPIDEAK: Ikasle batek baja emanez gero, Ikastolen Elkartearen esku geldituko da aurretiaz ordaindutako dirua bueltatzea, kasuan kasuko arrazoiak aztertuko dira. Baldintza orokorrak izen emate orrian azalduko dira.

## UDALEKUEN INGURUKO INFORMAZIOA ETA IZEN- EMATE ORRIA **NON** :

a. Ikastolen Elkarteko bulegoetan.

b. Zure Ikastolako idazkaritzan.

d. Web orri edo e-posta bidez:

www.ikastola.eus (AISIALDIA ATALA)

www.aisialdia.eus

aisialdia@ehi.ikastola.eus

## DOKUMENTAZiOA NORA BIDALi :

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK “EHI” (AISIALDIA)

Errotazar bidea, 124 / 20018 DONOSTIA

Tel.:(0034)943.36.96.37

Faxa:(0034) 943.46.52.94

ARRETA ORDUAK :

ASTELEHENA-OSTEGUNA:

09:00 - 14:00 ETA 15:00 - 17:00

OSTIRALA:

09:00 - 15:00

ikastolenelkartea

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia